

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gohemu Kontseiluaren 20/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak egikaritzeko dirulaguntzen oinari arautzaileak onesten dituen Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretua aldatzeari

2020ko uztailaren 21eko Europar Batasuneko Kontseiluak Berreskuratze Europako Tresna abian jartzea onetsi zuen. Tresna horren garapenean, Parlamentuak eta Kontseiluak Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua eman zuten, zeinaren bidez ezartzen baita "NextGeneration EU" funts berriaren bidez finantzatuko den berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa, haren elementu nagusia "Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa" izanik.

Ondoren, Ministro Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an egindako bileran, Kultura eta Kiroleko ministroak proposatuta, erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez baimentzen baita autonomia erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek kudeatutako kredituen lurralde banaketaren eta banaketa irizpideen proposamena egitea Kultura eta Kirol Ministerioaren aurrekontuaren kontura, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren "Kultura industriaren balioa handitzea" 24. osagaiaren esparruan.

"Kultura industriaren balioa handitzea" izeneko 24. osagaiak Espainiako kultura industriaren balio katea indartzera bideratutako erreformak eta inbertsioak jasotzen ditu, hiru ardatz estrategiko hauek sustatuz: lehiakortasuna, lurraldearen dinamizazioa eta kohesioa, eta kultura zerbitzu handien digitalizazioa eta jasangarritasuna. Horren barruan hainbat proiektu daude, eta besteak beste, "C24 Kultura industriaren balioa handitzea. I2 Kultura dinamizatzea lurraldean zehar. C.24. I2. P1. Kultura eskaintza hirikoak ez diren eremuetan zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak". Horren arabera, Next Generation funtsen bidez finantzaketa hori jasotzen duten autonomia erkidegoek kredituak bideratu beharko dituzte beren lurralde eremuko erakunde publiko eta pribatueta 2022. eta 2023. urteetan laguntzak emateko deialdi publikoetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontuen eta kontabilitatearen betearazpenari buruz eta kudeaketa eta jarraipenari buruz (martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpena).

Erabaki horren laugarren puntuak honela dio, hitzez hitz: Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsak banatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoak Estatu Administrazioetik lor ditzakeen eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen artean adostutako eskumen mugaketaren arabera, Lurralde Historikoetako foru organoei gauzatzea dagokien azpiproiektuak finantzatzera legez atxikita dauden diru sarreraren lurralde banaketa lurralde historikoen artean alde aurretik hitzartuko da foru aldundiekin edo, bestela, kasuan kasuko erakunde arteko organoen baitan.

Foru aldundiek beren gain hartuko dituzte, beren eskumenen esparruan, berreskuratze eta erresilientzia mekanismoaren araudiak erakunde betearazleei esleitzen dizkien konpromiso eta betebeharrak guztiak, haiei baitagokie azpiproiektuak betearaztea.

Hala, 2023ko ekitaldirako, Arabako Foru Aldundiari 108.187,55 euroko funtsa dagokio, "Hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak (C24. I2. P1)" finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duen otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuari dagokionez, finkatzen da Kultura Zuzendaritzaren eginkizunak direla kultura beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, arteak nahiz kultura ekimenak bultzatu, finkatu eta garatzeko, bai eta kultura ekintza eta kulturaren zabalkundea sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea ere. Eskumen horiek baliatuta, Kultura Zuzendaritzak esparru egokia garatu du Arabako kultura sektorea biziberritzeko, sustatzeko eta hari laguntzeko, dirulaguntzen urteko deialdiak onetsiz.

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2022rako deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren. Europar Batasunak - NextGenerationEU finantzatutako deialdia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Hala ere, plan horretako neurriak praktikan jartzean, Europako Batzordeak funtsak jasotzearen ondoriozko betebeharrak batzuk zehaztu ditu. Beraz, beharrezkoa da laguntza lerro horien oinarri arautzaileak aldatzea, planteatutako betebeharrak berrien arabera. Gainera, 2023ko deialdia onetsi behar da.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldaketa hauek sartzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean "Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak" gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onesten dituenak:

Bat. Hirugarren oinarriari 6. apartatua eransten zaio, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

"6. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa betetzea (DNSH printzipioa - Do No Significant Harm).

Egiten diren jarduerak "ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioa errespetatuko dute (do no significant harm-DNSH printzipioa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan, 2021eko otsailaren 12koan, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenean, eta hura garatzeko araudian xedatutakoa betetz, bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio hori aplikatzeari buruzkoa, baita Kontseiluaren Exekuzio Erabakian (Espainiaren berreskuratze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onesteari buruzkoa) eta haren dokumentu erantsian eskatutakoa ere.

Neurria «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeko gida teknikoari egokitzen zaiola bermatzeko (DOC 58, 2021-02-18koa, 1. or.), deialdi honetako dirulaguntza jasotzeko irizpideek honako jardura hauek baztertuko dituzte:

a) Erregai fosilekin lotutako jarduerak, horien ondorengo erabilera barne.

b) EBren isurtze eskubideen merkataritza araubidearen esparruko jarduerak (RCDE), baldin eta jardura horiekin lotuta aurreikusten bada eragingo dituzten berotegi efektuko gasen isuriak ez direla kokatuko dagozkion erreferentzia parametroen azpitik.

c) Hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak.

d) Hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalte egin diezaioketen jarduerak.

Estatuko eta EBko dagokion ingurumen legeria betetzen duten jarduerak bakarrik hautatu ahal izango dira.

DNSH printzipioa eta trantsizio digitala betetzen direla bermatuko da, hauetan jasotakoaren arabera: Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (PRTR), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) eta hura garatzeko araudia, bai eta Espainiako Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onesteari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenaren eskatutakoa ere. Horretarako, autonomia erkidegoek "Do Not Significant Harm" (2021/C58/01) delakoaren gida teknikoa beteko dute, aipatutako bazterketa zerrenda erabiliz eta ingurumenari buruzko legeria garrantzitsua (nazionala zein Europar Batasuneko) betetzeko betekizuna betez. Horrez gain, DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, neurriek honako ingurumen helburu hauetan eragin aurreikus nulia edo hutsala dutela ziurtatzeko:

- Klima aldaketa arintzea.
- Klima aldaketari egokitzea.
- Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.
- Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.
- Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea.

IT ekipoek beteko dituzte 2009/125/EC Zuzentarauaren arabera zerbitzarietarako eta datu biltegitzarako, edo konputagailuetarako eta konputagailuen zerbitzarietarako edo pantaila elektronikoetarako ezarritako energiarekin lotutako betekizunak.

Erosketa horietan, energetikoki efizienteak diren eta Europako Batzordearen Code of Conduct for ICT erabat errespetatzen duten ekipamenduen erosketa ziurtatzeko neurriak aktibatuko dira, eta neurriak hartuko dira ezarritako produktuen, tresna elektrikoaren eta elektronikoaren iraunkortasuna, konpontzeko, eguneratzeko eta berrerabiltzeko aukera areagotzeko.

IT ekipoek beteko dituzte 2009/125/EC Zuzentarauaren arabera zerbitzarietarako eta datu biltegitzarako, edo konputagailuetarako eta konputagailuen zerbitzarietarako edo pantaila elektronikoetarako ezarritako materialen eraginkortasunari lotutako betekizunak. Erabilitako ekipoek ez dituzte 2011/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako substantzia mugatuak izango, salbu eta material homogeneoen pisuaren kontzentrazio balioek ez badituzte gainditzen eranskin horretan zerrendatutakoak.

Bizitza baliagarriaren amaieran, ekipoek berrerabiltzeko, berreskuratzeko edo birziklatzeko eragiketarako prestaketa bat izango dute, edo tratamendu egoki bat, fluido guztiak ezabatzea eta tratamendu selektibo bat barne, 2012/19/EB Zuzentarauaren VII. eranskinaren arabera."

Bi. Beste letra bat, e), gehitzen zaio bosgarren oinarriko 5. apartatuari, baztertutako erakundei buruzkoa, eta honela geratzen da idatzita:

"e) Europako funtsen onuradun diren erakundeak, dirulaguntza eskatzen den helburu bererako, dela 2022an, dela 2023an."

Hiru. Beste letra bat, h), gehitzen zaio hamargarren oinarriko 2. apartatuari, eskatutako dokumentazioari buruzkoa, eta honela geratzen da idatzita:

"h) Titulartasun errearen erantzukizunpeko adierazpena. XI. Eranskina."

Lau. Aldatu egiten da hemeretzigarren klausularen idazketa, eta honela idatzita geratzen da:

“Hemeretzigarrena. Azken klausula.

1. Foru dekretu honetan ezarritako prozedura arau hauetan ezarritakoaren mende dago: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena eta aplikatu beharreko araudi guztia.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, foru dekretu honetan araututako prozedura Next Generation funtsen bidez Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana arautzen duen araudiaren mende geratuko da. Hona hemen araudi hori:

a) 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

b) 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza araei buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 1296/2013 (EB), 1301/2013 (EB), 1303/2013 (EB), 1304/2013 (EB), 1309/2013 (EB), 1316/2013 (EB), 223/2014 (EB) eta 283/2014 (EB) erregelamenduak eta 541/2014 (EB) Erabakia, eta indargabetzen baita 966/2012 (EB, Euratom) Erregelamendua.

c) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, onesten dituenak presako neurriak Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

d) Ebazpena, 2021eko apirilaren 29koa, Idazkariordetzarena, Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakia argitaratzen duena; erabaki horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana onetsi da.

e) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.

f) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

g) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien mugarrien eta helburuen betetze mailaren jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu eta kontabilitate betearazpenerako”

Bigarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuaren IV. eranskina aldatzea, haren edukia foru dekretu honen eranskin gisa onartuz.

Hirugarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuaren VI. eranskina aldatzea, haren eduki berria foru dekretu honen eranskin gisa onartuz.

Laugarrena. Oinarri arautzaileen XI. eranskina onesten da: Titulartasun errealaaren erantzukizunpeko adierazpena. Haren edukia foru dekretu honen eranskin gisa onesten da.

Bosgarrena. Onestea “Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak” gauzatzeko dirulaguntzen 2023rako deialdia, xehetasun hauekin:

– Dirulaguntza eskaeraren xede diren proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean garatu beharko dira.

– Deialdiaren zenbatekoa 108.187,00 euro da, eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastu partida hauen kargura ordainduko da, honela banatuta:

- 1. modalitatea: 70105. G/334700/47900707 NGEU 2023: Arabako Lurralde Historikoan hiri-koak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak. Enpresak. 50.000,00 euro.

- 2. modalitatea: 70105. G/334700/48100727 NGEU 2023: Arabako Lurralde Historikoan hiri-koak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak. Elkarreak. 30.000,00 euro.

- 3. modalitatea: 70105. G/334700/46290709 NGEU 2023: Arabako Lurralde Historikoan hiri-koak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak. Toki erakundeak. 28.187,00 euro.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beharrezko bada, hasierako zuzkiduraren ehuneko 20erainoko zenbateko gehigarria ezarri ahal izango da, beste deialdi bat egin gabe, betiere kreditu egoki eta nahikoa badago.

– Gutxienez ere hiru proiektu hautatuko dira, eta horiek jasoko dute baloraziorik handiena, hamaikagarren oinarrian ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz.

– Gastu lagungarriak izango dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, merkatuko balioa gainditu ez eta 2023ko urtarilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean egiten direnak.

– Eskaerak aurkezteko hamar (10) egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Seigarrena. Kultura arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapen bakarra. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

VI. ERANSKINA

**KONPROMISO ADIERAZPENA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA
PLANEKO JARDUKETAK GAUZATZEARI ETA 2020/852 (EB) ERREGELAMENDUAREN
17. ARTIKULUAREN ZENTZUAN SEI INGURUMEN HELBURUEI KALTE
ESANGURATSURIK EZ EGITEAREN PRINTZIOA BETETZEARI BURUZKOA**

..... jaun/andreak, NANdunak, IFZdunak
eta zerga egoitza duenak honako hau adierazten du, onuraduna den aldetik,
24. osagaian (Kultur Industriaren Balioa Handitzea) zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak
diren jarduketan garapenean:

ERANTZUKIZUNEZ HAU ADIERAZTEN DUT

LEHENENGOA. Jasotako laguntzari lotutako jarduerak betetzen du DNSH printzipioa, «kalte nabarmenik ez eragitekoa», Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021/241 (EB) Erregelamenduak eskatzen duena, eta, beraz, ez die kalte nabarmenik eragiten 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluko sei ingurumen helburuei, zeinak jarraian zerrendatzen baitira:

a) Klima aldaketa arintzea – jarduera batek kalte nabarmena eragiten dio klima aldaketa arintzeari, berotegi efektuko gas (BEG) ugari isurtzen baditu.

Ekipoek beteko dituzte 2009/125/EC Zuzentarauaren arabera zerbitzarietarako eta datu biltegi-
giratzerako, edo konputagailuetarako eta konputagailuen zerbitzarietarako edo pantaila elektro-
nikoetarako ezarritako energiarekin lotutako betekizunak. Erosketa horietan, energetikoki efi-
zienteak diren eta Europako Batzordearen Code of Conduct for ICT erabat errespetatzen duten
ekipamenduen erosketa ziurtatzeko neurriak aktibatuko dira, eta neurriak hartuko dira ezarritako
produktuen, tresna elektrikoaren eta elektronikoaren iraunkortasuna, konpontzeko, eguneratzeko eta
berrerabiltzeko aukera areagotzeko.

b) Klima aldaketari egokitzea – Jarduera batek kalte nabarmena eragiten dio klima aldake-
tari egokitzeari, baldin eta egungo eta etorkizuneko klima baldintzen ondorio kaltegarriak
areagotzen baditu, bai bere gainean, bai pertsonengan, naturan edo aktiboengan.

c) Ur baliabideen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa – jarduera batek
ur baliabideen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarriari kalte nabarmena eragi-
ten diola jotzen da, ur masen egoera onaren edo potentzial ekologiko onaren kalterako bada,
azaleko eta lurpeko ur masak barne, eta itsas uren egoera ekologiko onaren kalterako bada.

d) Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne – jarduera batek
ekonomia zirkularri kalte nabarmena eragiten diola joko da, hondakinen prebentzioa eta bir-
ziklapena barne, baldin eta materialen erabilera edo baliabide naturalen zuzeneko edo zehar-
kako erabilera eraginkortasunik eza handiak sortzen baditu; hondakinen sorrera, tratamendu
mekaniko-biologikoa, errausketa edo hondakinen zabortegian uztea nabarmen areagotzen
badu; edo hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalte nabarmena eta epe luzera
eragin badiezaioke.

Neurriak ez du eragin handirik edo hutsala izango du lotutako ingurumen helburuan, haren
izaera kontuan hartuta. Ekipoek beteko dituzte 2009/125/EC Zuzentarauaren arabera zerbitzari-
etarako eta datu biltegi-
giratzerako, edo konputagailuetarako eta konputagailuen zerbitzarietarako
edo pantaila elektronikoetarako ezarritako materialen eraginkortasunari lotutako betekizunak.
Erabilitako ekipoen ez dituzte 2011/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako sub-
stantzia mugatuak izango, salbu eta material homogeneoen pisuaren kontzentrazio balioek ez
badituzte gainditzen eranskin horretan zerrendatutakoak.

Bizitza baliagarriaren amaieran, ekipoen berrerabiltzeko, berreskuratze edo birziklatzeko
eragiketarako prestaketa bat izango dute, edo tratamendu egoki bat, fluido guztiak ezabatzea
eta tratamendu selektibo bat barne, 2012/19/EB Zuzentarauaren VII. eranskinaren arabera.

e) Atmosferaren, uraren edo lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea – jarduera batek kalte nabarmena eragiten dio kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari, baldin eta atmosferara, uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileak nabarmen handiarazten baditu.

f) Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea – jarduera batek kalte nabarmena eragiten dio biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari, baldin eta neurri handi batean ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako bada, edo habitaten eta espezieen kontserbazio egoeraren kalterako bada, bereziki Europar Batasunarentzat interesgarriak direnena.

BIGARRENA. Jasotako laguntzarekin ez du garatzen «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoan adierazitakoaren arabera baztertutako jarduerarik, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera. Zehazki, hauek dira kanpoan utzitako jarduerak:

a) Erregai fosilekin lotutako jarduerak, horien geroko erabilera barne¹;

b) EBren isurtze eskubideen merkataritza araubidearen esparruko jarduerak (RCDE), baldin eta jarduera horiekin lotuta aurreikusten bada eragingo dituzten berotegi efektuko gasen isuriak ez direla kokatuko dagozkion erreferentzia parametroen azpitik²;

c) Hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin³ eta tratamendu mekaniko-biologikoko⁴ instalazioekin lotutako jarduerak; eta hondakinak epe luzera ezabatzean ingurumenari kalte egin diezaioketen jarduerak.

HIRUGARRENA. Onartzen du estatuko eta dagokion EBko ingurumen legeria betetzen duten jarduerak soilik izango direla hautagarriak, eta ez du aurreikusten proiektuak edo jarduerak ingurumenean zuzeneko ondorioz izango duenik, ez eta zeharkako ondorio primarioz ere, hau da, proiektua edo jarduera amaitu ondoren gauza daitezkeenak.

.....(e)n, 2023koaren(e)(a)n.

Sin.

Kargua:

1 Salbu eta neurri horren esparruan elektrizitatea eta/edo beroa gas naturala erabiliz sortzearekin eta garraio eta banaketa azpiegiturarekin lotutako proiektuak, baldin eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte (2021-02-18ko AO C 58, 1. or.).

2 Diruz lagundutako jarduerak eragindako berotegi efektuko gasen emisioak erreferentziako parametro egokiak baino nabarmen txikiagoak izango ez direla aurreikusten bada, horri buruzko azalpen arrazoitu bat eman beharko da. Isurtze eskubideen doako esleipenerako ezarritako erreferentzia parametroak, isurtze eskubideen merkataritza araubidearen aplikazio eremuan inskribatzen diren jarduerari dagokienez, Batzordearen 2021/447 (EB) Betearazpen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

3 Salbuespen hori ez zaie aplikatuko soilik hondakin arriskutsu ez-birziklagarriak tratatzen dituzten instalazioetan neurri honen esparruan hasitako ekintzei, ez eta lehendik dauden instalazioei ere, baldin eta ekintza horien helburua bada energia efizientzia handitzea, ihes gasak harrapatzea biltegitzeko edo erabiltzeko, edo errausketako errautsetako materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badakarte instalazioetan hondakinak tratatzeko gaitasuna handitzea edo haien bizitza baliagarria luzatzea; xehetasun horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira instalazio bakoitzeko.

4 Salbuespen hori ez zaie aplikatuko tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioetan neurri honen esparruan hasitako ekintzei, baldin eta ekintza horien helburua bada haien energia eraginkortasuna handitzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketarako berregokitzea, hala nola konpostatzea eta biohondakinen digestio anaerobioa, betiere ekintza horiek ez badakarte planten hondakinak tratatzeko ahalmena handitzea edo haien bizitza baliagarria luzatzea; xehetasun horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira planta bakoitzeko.

XI. ERANSKINA

TITULARTASUN ERREALAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 erakundeko (IFZ:);
 zerga egoitza:)
 ordezkaria/gerentea denez, eta, BEEPeke baliabideen bidez finantzaturako laguntzen onuradun den heinean, «Kultura industriaren balioa handitzea» deritzon 24. osagaian, (deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan, definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, hauxe,

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA.– Ezagutzen du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko xedarekin; erregelamendu horren bidez, funtsen azken hartzailearen identifikazioari buruzko informazioa eman behar da: funtsen hartzailearen izen-abizenak, titular errealaren jaioteguna, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan titular errealaren definitzen den bezala.

BIGARRENA.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera, honako hauek dira titular errealak (hau da, azken buruan bezeroaren jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak edo transakzio edo jardueraren baten ardura duten pertsona fisikoak):

TITULARTASUN ERREALA				
BAZKIDEAREN EDO AKZIODUNAREN IZEN OSOA	NAN/AIZ/PASAPORTEA	NAZIONALITATEA EDO EGOITZA SOZIALA	JAIOTEGUNA	PARTAIDETZA (%)

1 Pertsona juridikoen kasuan, gutxienez hurrengoak hartuko dira kontuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuaren arabera:

(i) «Azken buruan pertsona juridiko baten jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak, entitate horretan akzioen, boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen ehuneko nahikoaren zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez, eramailearentzako akzio-zorroak barne, edo beste bitarteko batzuen bidezko kontrolaren bidez, merkatu arautu batean kotizatzen duten eta Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-betekizunen edo jabetzari buruzko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak izan ezik.

Zuzeneko jabetzaren zantzu izango da pertsona fisiko batek kapital sozialean ehuneko 25eko partaidetza izatea gehi akzio bat edo jabetza-eskubide bat, ehuneko 25etik gorakoa. Zeharkako jabetzaren zantzu izango da pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean dagoen sozietate batek, edo pertsona fisiko beraren edo batzuen kontrolpean dauden sozietate askok, kapital sozialean ehuneko 25eko partaidetza izatea gehi akzio bat edo erantsitako 25. jabetza-eskubide bat baino gehiago bezeroan. Aurrekoa aplikatuko da estatu kideek ehuneko txikiagoa jabetzaren edo kontrolaren zantzu izan daitekeela erabakitzeke duten eskubideari kalterik egin gabe. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrola» dagoen zehaztu ahal izango da, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1-5 zenbakietan ezarritako irizpideen arabera».

ahal diren bitarteko guztiak agortu ondoren, eta betiere susmo-arrazoirik ez badago, i) tartekiaren arabera inor identifikatzen ez bada, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak benetako titularrak edo goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duten pertsona fisikoak diren zalantzak badaude, behartutako erakundeek i) tartekiaren eta tarteki honen arabera benetako titulartasuna nork duen identifikatzeko hartutako neurrien erregistroak gordeko dituzte;

HIRUGARRENA.– Jakitea, eskatuz gero, titular errealaren/errealen notario aktaren kopia aurkeztu beharko duela, azken esleipenduna edo hartzailea merkataritza sozietate bat bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

.....(e)n, 2023koaren(e)(a)n.

Sin.

Kargua:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

ANEXO IV. ERANSKINA

Eskaera zk. • Nº Solicitud

Eskaera data • Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko • A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA • SOLICITANTE

Identifikazio agiria • Documento identificativo

IKZ
CIF

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. • Nº identificativo

Sexua • Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena edo sozietatearen izena • Nombre o razón social

Lehen abizena • Primer apellido

Bigarren abizena • Segundo apellido

Helbidea (kalea) • Domicilio (calle)

Zk. • Núm.

Letra

Eskra. • Escal.

Solairua • Piso

Aldea • Mano

Herrialdea • País

Probintzia • Provincia

Udalerría • Municipio

Herría • Localidad

P. K. • C. P.

Telefona • Teléfono

Mugikorra • Móvil

Faxa • Fax

Posta elektronikoa • Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA • DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute • No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) • Domicilio (calle)

Zk. • Núm.

Letra

Eskra. • Escal.

Solairua • Piso

Aldea • Mano

Herrialdea • País

Probintzia • Provincia

Udalerría • Municipio

Herría • Localidad

P. K. • C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA • REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da • Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria • Documento identificativo

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. • Nº identificativo

Sexua • Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena • Nombre

Lehen abizena • Primer apellido

Bigarren abizena • Segundo apellido

Protokolo zk. • Nº protocolo

Data • Fecha

Notarioa • Notario

Telefona • Teléfono

Mugikorra • Móvil

Faxa • Fax

Posta elektronikoa • Correo electrónico

RE: 23/196

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Orria ■ Hoja 1/7



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar solo en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

FINANTZA ENTITATEAK bete behar du ■ A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA

Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)

Banku kontuaren titulatasunak bat etorri behar du erakunde eskatzailearekin ■ La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con la entidad solicitante

ESKATZAILEAK bete behar du ■ A rellenar por la persona SOLICITANTE

ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT ■ INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:

- Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan ■ Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava.**
- Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan ■ Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.**

Datuak babesteko oinarritzko argibidea:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "T-41 Kultura sustapena" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Kultura jarduera sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, legez ezarritako kasuez kanpo.

Información básica sobre protección de datos:

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "T-41 Promoción cultural" para la finalidad de promocionar la actividad cultural en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de ÁlavaPlan de Recuperación,
Transformación
y ResilienciaFinanciado por la Unión Europea
NextGenerationEU**Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera**

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiak zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz –Araba).

Argibide gehiago:

[Lege ohar hedatua \(araba.eus\)](#)

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

[Aviso legal ampliado \(araba.eus\)](#)**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK ■ DECLARACIONES RESPONSABLES****(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)**

Erakundearen betekizunak betetzeari buruzko adierazpena ■ Declaración del cumplimiento de requisitos de la entidad:

- Erakunde eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko deialdian zerrendatutako baldintzak.** ■ La entidad solicitante cumple los requisitos enumerados en la convocatoria para ser beneficiaria de estas ayudas.
- Ez du zehapen administratibo edo penalik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatik edo sexu-orientazioagatik diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldi).** ■ No está sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el período impuesto en la correspondiente sanción).
- Ez du konkurtso-deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklarata, ez dago esku-hartze judicialaren mende edo ez da desgaitu Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe.** ■ No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
- Ez du eragin, errudun deklarata izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.** ■ No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza ez daude bateraezintasun-kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.** ■ No está incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.
- Egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.** ■ Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera


Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

- Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkeztutako dokumentazio guztia ere** ■ Son ciertos y completos todos los datos de la presente solicitud, así como toda la documentación presentada.

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena aurkezten ez bada, ezingo da jarraitu ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen gertaera horien berri jakiten den unetik bertatik, betiere horren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).



Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

PROGRAMARI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DEL PROGRAMA

Programaren izena ■ Denominación del programa	
Programaren hasiera eguna ■ Fecha de inicio	Programaren amaiera eguna ■ Fecha de finalización

LOTUTAKO ENTITATEEKIN AZPIKONTRATATZEA ■ SUBCONTRATACIÓN CON ENTIDADES VINCULADAS

Diruz lagundutako jarduera azpikontratatu da onuradunari lotutako pertsona edo erakundeekin? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zeintzuk. ■ ¿Se subcontratará la ejecución de las actividades subvencionadas con personas o entidades vinculadas? En caso afirmativo indique cuáles.

AURREKONTUA ■ PRESUPUESTO

Aurrekontua BEZa barne ■ Presupuesto IVA incluido	
Eskutatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado	
Norberaren ekarpena ■ Aportación de la entidad	
Beste sarrerak ■ Otros ingresos	

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA:

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- Programaren proiektua deialdiaren balorazio-irizpideetako alderdi guztiak adierazita. ■ Proyecto del programa, consignando todos los aspectos que forman parte de los criterios de valoración de la convocatoria.
- Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua kontzeptuen arabera. Aurrekontu orekatua izan beharko du, diru sarreren eta gastuen batura osoa baliokidea izango duena, eta diru sarreren atalean zehaztuko da eskatzen den dirulaguntzaren zenbatekoa (BEZaren banakapenarekin). ■ Presupuesto detallado de ingresos y gastos desglosado por conceptos. Deberá ser un presupuesto equilibrado en el que la suma total de ingresos y la de gastos sea equivalente, precisando en el apartado de ingresos el importe de subvención que se solicita (Con desglose de IVA).
- III. eranskina: Datuak laga eta tratatzeko adierazpenaren eredia, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez. ■ Anexo III: Modelo de declaración de cesión y tratamiento de datos en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de ÁlavaPlan de Recuperación,
Transformación
y ResilienciaFinanciado por la Unión Europea
NextGenerationEU**Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera**

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

- V. eranskina: EBko finantza kontroleko erakundeen informaziorako eskubideak eta sarbideak emateko baimen orria, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez.** ■ Anexo V: Modelo de autorización para la concesión de derechos y accesos a la información de las entidades de control financiero de la UE en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).
- VI. eranskina: Ingurumen helburuetako bati kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana) eta ingurumen-helburuei (DNSH) kalterik ez egiteko printzipioa betetzeari buruzkoa, EB 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluaen ildotik.** ■ Anexo VI: Declaración responsable sobre el cumplimiento del principio de no causar un perjuicio significativo a alguno de los objetivos medioambientales (plan de recuperación, transformación y resiliencia) y sobre el cumplimiento del principio de no perjuicio significativo a los seis objetivos medioambientales (DNSH) en el sentido del artículo 17 del Reglamento UE 2020/852.
- VII. eranskina: Konpromiso adierazpenaren eredia, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez.** ■ Anexo VII: Modelo de declaración de compromiso en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).
- VIII. eranskina: Estatu laguntzen araubidearen bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.** ■ Anexo VIII: Compatibilidad régimen de ayudas de estado y prevención de la doble financiación.
- IX. eranskina: Arabako Foru Aldundiaren iruzurraren aurkako neurrien planari eta iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionalari atxikitzea.** ■ Anexo IX: Adhesión al plan de medidas antifraude y a la declaración institucional de lucha contra el fraude de la Diputación Foral de Álava.
- X. eranskina: Administrazio publikokoak ez diren langileen interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpenaren eredia (IGEA).** ■ Anexo X: Modelo de declaración de ausencia de conflicto de intereses del personal externo a la administración pública (DACI).
- XI. eranskina: Benetako titulartasuneko erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.** □ Anexo XI: Modelo de declaración responsable de titularidad real.
- Erakundearen ordezkari lanetan diharduela egiaztatzen duen agiria** □ Documento que acredite la representación de la Entidad
- Erakundeak BEZaren kuotak berreskuratzen ezin baditu, BEZaren salbuespen-zurtagiria, Foru Ogasunak emana.** ■ En el supuesto de que la entidad no pueda recuperar las cuotas de IVA, certificado de exención de IVA expedido por Hacienda Foral.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava

2023

KULTURA ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA ▪ COMPROBACIÓN DE OFICIO POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:

(Adierazi daqokiona ▪ Marcar lo que corresponda)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean: ▪ De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- **Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ▪ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- **Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ▪ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- **Nortasun datuak kontsultatzea, autonomoa bada** ▪ Consulta de datos de identidad, en caso de persona autónoma.

- Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO** ▪ ME OPONGO a la comprobación de oficio por parte de la Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Álava.

Aurka eginez gero, deialdiaren eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharkoditu ▪ En caso de oponerse deberá aportar todos los documentos requeridos en la convocatoria.

(*Tokia eta data* ▪ *Lugar y fecha*)

Ordezkararen sinadura eta zigilua ▪ Firma de la persona representante legal y sello